Akorda.

Izpazter'era.

Igandian Izparteratu ziran geure neska-mutil gastiak. Ori aretan ixan ziran euzko jayari garantzi andijagoa emon gurarik. Egualdija guztiz txara ixan eben, baña txar da guzti eldu onek. ¡Zer ete da gaste ixatia!

Audok-elorijue!

Poz-pozik egon gera aurten guztizko «patata» ederak daukaguzala, ta ora or eurijen-eurijaz porot eginda. ¿Layatuteko lure gogor egon dala? ¡Ora emen bigunduta! Dana ona eta ondo baserijetan (1) gatx-gatxa da. Gure ausoan «maluki» ederak jauzak ¡ai Kose, lo arapatzen baut! ¡a ze poza artu bear daben nire buskentzak!

Geure-artian.

Geure artian ixan doguz Motriko'tik etorita Txuruka'tar Karmele eta Batirtze aizta politak.

Irakasleme'tzaz azterpen onak atera-ta geure artian agertzen da Aberasturi'tar Miren. Lamikiz'tar Kauldi be, emen dogu. Ondo etorijak.

Santamañek-atian.

Laster jatorkuz eriko jayak, eta aurten ze ikusiriko gauzak egongo ei-dira «Gigantes y Cabezudos» «trañeruen» estropada, astuan arinketa (2) eta abar. Ez zaiteze lotu ba Akordara etori barik inortxu be, etxatzue damutuko-ta. Urengo «Ekin»en irakuriko dozuez jai-onen gora-berako izpar geiago.

GERO-ARTE

(1) Ta kalian ez ala?
(2) ¡Ori, ori, batez bere Bizkaian egin ezik ¿nun egingo dabe ba? A.

Ondarua.

Euzkel ixenak.

«Konde-Etxebari» basetxeko Maguregi'tar Perdinandaren emaztiak alaba bat ixan dau eta ugutz deuna artzian Miren Begoñe euskel ixen polita ipiñi dautse.

Igandian ugutzau eben Miren deunaren txadonan Jon Iñaki ixenagaz Aristi-Aspiazu sendiak ixan daben semetxua.

Koldobika deunaren omenez.

Ospetasun aundiagaz ospatu doguz koldobikatarak gure zaindariaren omenez egiñ doguzan elizkizun eder eta onuragariak. Igandian zortziretan ixan geban zaindariaren omenezko jaunartzia eta koldobikar asko batu giñan Gotzón-janaria artzera. Aratsaldian asi zan iruurena eta iru egunetan txadona bete betia ikusi izan dogu. Lenengo egun bietako txonitzak Iriarte Josulagun agurgariak egin ebazan eta irugarena gure zuzendari zintzo Uriarte'tar Eustaki jaupari argiak.

Txonitz guztiak entzulien atsegingari ixan ziran.

Koldobika deunaren egunian, asteguna ixan aren, koldobikatar asko ikusi gebazan donoki-Ogia artzera uferatzen.

Ikastoletako umiak.

Ikastoletako umiak ibildaldi eder bat euki eben igasi dan egubastenian. Mutilak kantauriko aixe gozuak artuaz Bizkaiko itxaseri batzuek ikusten ibili ziran. Emakumiak bariz, itxasua alde batera utzita, Gipuzkoan baruna sartu eta ibili ziran.

Arantzaliak.

Igasi dan astian arantzaliak arain gitxi ekari dabe. Asteko arañaren saneuria 27.000 laurleko ixan dira.

Naste-Boraste.

Lizarara juan da Ituarte'tar Koldobika gudari gaztia.

Axpe'ra Jon deunaren txonitzak egiten Uriarte'tar Eustaki jaupari agurgaria.

Igandian abertzale asko juan ziran Itziar eta Ispaster'era.

Ilobitegiko atian «Cementerio Civil» diñon argazki bat jari dabe.

Igazi dan astian oraiñ arte Ondaruko kaian iñoiz sartu ez dau lako itxasontzi bat sartu zan. Itxasontzi au «Etxano» ixenduna zan eta 1.200 tonelada eukazan.

GURUTZ

GORUNTZ-GAYAK
Euñak, bale-bizarak, zumitz ugar-gaitzak
Zubiri'tar Bingen
Artekale, 50 BILBAO

Lezama.

Eleizkizunak.

Igaro dan igandean Josu-Biotzaren bederatziuruna asi dogu; datorren igandean eleizkizun nagosia egingo dogu ta oso ederra izango dala-ta gagoz; oneretarikoak gertatzen makala eztan bertoko Eleiz-Gaztearen Irakaslea lanean asita dago-ta.

Gañean dogu.

Egun gitxi daukaguz geure jai-ederak egiteko; Lezama'ko Euzko-batzokiaren zabalkundea eta Emakumien Ikuriñaren oneskundea egiteko eguna gañean dogu mutilak; egun oneri berea emon bear jako e.....? jai-egitaraua ikusteko izango dozue ta or ikusiko da... Irakurle, al bada ona etori. Emen ikusiko dozuz goizeko seiretan abertzale bazkide diranak beintzat gure Jauna artzen; Emakume-batzako bazkideak zetan ezan bez. Bederatziterdietan Erbesteko Emakume eta Mendigoizaleen sarerea ta ondoren Ikuriñaren oneskunde ta Jaupa nagosia bertoko Euzko-gaztediak abestuta. Amabietan eriko ezpata-dantzari txiki eta nagosiak euren dantza ikusgaria; ta gero bazkari ederra. Aratzaldean eleizkizun ondoren itzaldi mamintzuak; Trabudua'tar Polixene nezkatil buruz argi eta lirañak egingo dau lenengo eta gero «Ruiz del Castaño» Ugartetxea, Monzon, eta Agire jaunak. Bertzolariak Enbeita anayak. Emakume ta Mendigoizaleak, zeuoen ikuriñakin guztiok ona. Lezama'tar abertzaleak bixkortu ta ez lo-egin, udabariko egun sentian txoriak lez pozez ibili gaitezan.

Jagi, jagi, lezamarak
Laster dozu-ba eguna
Soskaldetik dagertzu ba
Argi, gozo, biguna.

Ondo etoriak.

Zubiaur'tar Joseba etori da etxera; egun batzuk igaro dauz Bilbo'ko osategi-etxe baten; baita Ujedo'tar Augustintxu osategi-etxetik etxeratu da; zorionak etxekoari.

Umetxuen agura.

Umien aginduz agurtzen zaituz J. Z. Lezama'ko K. Ikasbideko umeak aintzat artuteak poz aundia emon dautzezue-ta. Abade Jaunak K. Ikasbidean irakuri ei-dautzie «ez estutu umetxuak; zuori be txandia elduko jatzue-ta; ondo gertau orduakoxe» ikustea zan umetxuak ekaren poza; geuri be poza emoten euskuna zan.

Euren lanean.

Bizkor be bizkor diardue Ikuriña ordaintzeko diru-batzen gure emakumeak.

Usansolo'ra.

Ila onen 5'gn. Batzoki-zabalkundea eta Emakume-batzako Ikurin-oneskundea zala-ta emetik gazte asko bertaratu gintzazan; biotzak pozak bete euskuzan; an entzun genduzanen pozgariak! Surumurukeria onetzaz be; gerizea geure gorputzari lez atzetik edo egaletik beti jabilkuna da-ta... ez dautsegu baña bilduri k. Guk emakumiok esku-artean zer darabilgun jakitun ta beti zintzo..., goizean seiretako Meza Santuan bizkor gengozan; Gure Jauna artu, abesti gozoak geure Ama maiteari abestu ta gero... bear gendun tokira. Onetaraxe dakigu guk gure irakasleen esanak egiten; eleizkizun guztietara dei-egiten dauskue ta antxe gertu guztiok izaten gara. Geu gara astero eleizea garbitu ta aldarak eta Santuak jantziten doguzanak; zer dala-ta zurumuru beti? Eleizan ereguka ta kanpoan maluka egon bear dala ez al dakizue?

EIOLARI

Erigoiti.

Yayek.

Lengo domekan izan zirian uri onetako yai nagoziak; eta egualdi ona be begoan eta goxean gurazo askok igon eban euren umeak Gorputz Santuari mun egiten dakardiezala. Beluko mezea esan eban Ibaruriko seme ta Aita franziskotar dan Meliton Gainzak, eriko abeslariak abestuta ta benetan ederto. Itzaldia egin eban Lumoko txaunburuak. Aratsaldean euri asko egin eban ta esan genterik etori, Abertzaleen mitiña be egiteko zan, baye beste egun baterako itxi zan.

Iruñara.

Iruñara izan da emeko alkatea beste bategaz, Estatutoen alde autarki edo botoa emoten.

Eztakit zergaitik.

Askori entzun deutset ia zergaitik ez dan ipinten Ayuntamentuko balkoyan Euzkadiko ikurin edo banderea, Españekoen ondoan. Eririk geyenetan alan egiten dabe baye ez dakit emen zergaitik ez daben egiten.

S.

Otxandijo.

Irakurle.

Aspalditxo onetan gexorik aurkitu izen naiz ta oregaitik asteroko bertoko gora-berak idatzi barik egon biar. Atzera be bagatoz zugana zeozertxo esatera.

Euzko-Araudija.

Euzko-Araudija ixen da agom iñian ibili dana eri-onetan. Igandian ernei aurkitzen zan bakotza jakin arte zer egin zan. Udal batzarian. Tamalez ikusi gendun Naparta'rak bat egitia ezebela nai euren bezte anajakin. Eskuma-aldekuek ta baite gorijak bere onen aurka egon zirala ¿zer nai ete dabe ba? Geldi egoteko zazoie au ezta. Oraiñ jo egin beara dago batera edo bestera. Itxartu ta lan egin zeozer lortu al bada, garbi ta argi ikusten dira Madril-aldien emeko eskubideak ezagutzeko baiño ukatzeko gertuago dauzela, bai eskuma aldekuek ta bai ezker aldekuek be-ta.

Lugiñak.

Aurtengo urtia guztiz txara ixateko bidian guaz. Dana dago txarto, makal-makalik artuak, indabak epel-epelik, bedara gutxi ta lur-sagara berandutxo datoren lez laster goriñaz galduko direz, eguraldi argijak egiten ezpadauz.

Mokoletan.

Gogor lanien darutze Mekoletarak bai ikastolako ariten ta bai bide giñan, len aste bete galdu eben Deun Bernabe jaijetan ta aren egunak kitatzen.

Oleta aldetik.

Betiko lez lanian darutze an be, gogo andijaz eguraldijak altzau daizen bierak aurratzeko. Diñoste orain-diño txorija zazipeyan geldi dagoala, baiña urteten dabenian abeztu bier dabela gogo andijaz.

Amaitarmin aldetik.

Ausuna onetan esnia batu ugeri ta sendo, ta bialtzen dabe Gasteiz aldera betiko lez, onek eztabiz lurraz buruka, bedara zekule bedar ta onetariko janarijaz zabela bete aberiari ta tiretu sano eruetatik. Mutilak ontxe gogoratu babie, artue ta beste emparuek erosteko negureko, gero guztiz diru andije egingo dabe-ta. Garay Gordobil anaijak diñoste oraindiño Durengoko gori batzarien jaraitzen dabela ta Liberala irakurten be jaraitzen dabela. Solo-musturian jszarite Liberala irakurtie ta txori-malue euskerazko frakakin ipintie bardin bardiñak dire. Liberala esta egin ba lugin gizonentzako (1) ta euzkaldunentzako, oretarako dagoz euskel isparingijak, ta txori-malue, bariz, bixerazko txapelaz ipiñi biar da ta ez euskerazkuaz.

URIGOIKO

(1) Ez arantzalientzako be, inpernutarentzako baño. Zintzoro-zintzoro guzure dala jakin, ori ta guzti be irakuri?—A.

Urkiola.

Egualdia.

Egun onetako egualdi txarak ikusita igaro zan urtian Zornotza-aldean ixan ziran gertakizun negargariakaz gogoratuten gara: orduan be, batez be Jon Deunaren egunian onakoxe odei-uri ugariak jausi ziran, eri askotara galtze negargariak ekariaz.

Arantzatzuko erobatibea.

Astelenean etori ziran Arantzatzu, Aratiako eliztarak erobatibeagaz. Arentzak emen egiñik, belbil bitan Estibalitz'era juan ziran, euria goyan-beyan zala.

Igandea.

Igaro dan igandean gente asko etori zan Urkiola'ra; batez be gasteak umore on askogaz eta lotsabakokeri geyagogaz, danak etziran Andoni Deunagana etori. Deun au, otoitz zutsuak eta gauza garbiak geyago poztuten dabe, inpernuko auzpoak, dantza loyak eta jantzi ganorabakoak baño.

Bilbao'ko Pantzezka'tar gaztedia.

Bilbo'tik batzar bat egitera eldu ziran, igandean, pantzezka'tar gastedi ta beste Irugarren O.'ko eliztar batsuk. Goizean jaupa nagusia andikiro abestu eben. Aratzaldean Bilbao'ra biurtu baño len, bariro beste elizkizun bat izan eben, Basurtu'ko lekaide bat txonizlari zala; erderaz ederto mintzatu zan.

Zeanuritarak.

Ila onen 18'gn. etori ziran Zeanuri'ko eliztarak Atutxa'tar Bedita txaunburu jaunagaz, eta udal-gizon batzukaz.

Erakutsi onak emon zituezen, batez be eri-abestietan.

Gora-berak.

Eguenean Bilbao'ko «Beriotxoa» deritxon ikastetxeko gazteak datoz egun bat Urkiola'n igarotera.

—Emen agurtu dogu Galdakano'ko Mandaluniz gazte argia.

—Baskonia'ra joan dira Ibarzabal neba-arebak.

—Lexona'ra Bosañez aiztak.

IRUARETXETU

Joseba Deuna'ren Idaztitegia
(Libreria SAN JOSÉ)
Bilbao'n danik orniduena uzkurtz'tzazko saloskai gauzetan.
BILBAO'n Loteria 2

Mañari.

Juaa-etorijak.

Pasajes'tik etorita, udaldija igaroten emen aurkitzen dira, Zulaika'tar Joseba ta Imanoltxu mutikuak; Bilbo'tik etori zan Urien'dar Eustoke anderea, igandean agurtau genduzan emen Areitio'tar Miren anderea ta Ozerin'dar Margarite neskatilia.

Oberantza.

Artetxe'tar Norberte anderea, bere gexo luzian oberentza eginda aurkitzen da. Arin osatuko al-da.

Urkiola'ra.

Igandian be, Urkiola'ra lagun asko juan zan. Eta geyenak gastiak zira-lako, umore onaz igaro ziran. Oneik aurerako igandietan, Urkiola'ra igaroten diranok, eritxu au, berariz alajtuko dabe, Yente asko juaten da-ta.

Durango'ra.

Igande aratsaldian, emeko gazte asko Durango'ko jayetara juan ziran. Eta batzuen eretxiz, aurten an egin diran jayak be, beti lez, oso politak ixan dira; polita be baña, zeri esaten dautsoen lenengo jokin biarko da...

Gaurko eromeri-zaliak, gabez txori ta egunez mosolo...

Estatutoaren aldez.

Igandian, Barazar'tar Estepan gure alkate jauna be, Iruña'n egin zan batzarera juan zan. Entzun dogunez, emeko Udala, osuan, Euzko-Araudija edo Estatutoaren alde dago ¡Ederto gixonak! Olantxe jaraitu beti.

¿Egija ete da...?

Lengo egun baten entzun geban, «Baltzuntze»ko Txautxirikok eta «Bidekurutze»ko Txantxilin mutilak, Untzilatx'ko artzilikia bera epernan zein ariñago jatsi «posturia» egin dabiela. Oraitik, entzun dogun gustija egija ba-da, gauza ikusgarija benetan ixango da; lagun asko etoriko litzake ikusten be.

Zeiñek irebaziko daben? Iñortxok be eztaki. Baña neuk, Txautxirikoen alde, galtzeko bildur andi barik, belari bat edozeiñeri jokatuko neuskijo. Atxian ibilten iñor ez lakoa dalako.

MAÑARIKO

EGILEOR'TAR JON G. TA SEMIAK
AUTONOMÍA-24'gn. — ABANDO'n
Igali edo *fruta* ta basoko zugatzak-Landa, ta ortu-azijak. Zimaurak; kokuak ilteko gayak, eta abar. Landara-gatzak kentzeko irakaskixunak.
Ortu ta barat-eredubak.

Ibarangelu.

Eleizkizun ederakin dua Josu'ren Biontzan il au be. Notintza edera, batez bere igandietan; abeslariak be ederto ekiten dabe, abesti bariak be aurten badabilez; ¡bai ba! soñua be edera dago emen eta soñularia be onenetarikua daukagu. Oretan itxi geldi beroneri neskatilak gertetan eta alegiñak eiten gtxi lakua da.

Laga'n egubenian euki eban jan ospatsua edo banketa Elorio'ko eta beste lagun batzuk. Automobilaz bialdu eben Laga'tik aratsaldian emengo tanbolin bila. An zan bai jantzia eta poza; Elantxobe'ko neskatila eta mutilak be an ziran, eta amaieran bidetxabaletik etozan euzko-abestiak joten gure tanbolinteru gastetxuok Angel eta Txomintxu eta neskatila-mutilak abestuten eta jantza. Isartu genduzan Ibarangelutarak guztiok be geure poz eta atsegiñaz gengozan euroi begira; baña antziñe Elantxobe ei zan sorgin eria baña orain emen daukagu sorgin-etxe bat eta ango amia estu ebilan aren soñu eta jantzakaz artega ta ezin ixilik egonda; ia ba.....

NEGUA

Bolibar.

Azterketak.

Zapatuan izan zituzten auzo ikastola'ko umetxuak euren urteroko asterketak.

Eguraldia.

Euri jasa ederak aspalditxo ontan baditugu. Gezura dirudi orelako eguraldi txarak egitea gauden sasoian. ¿Bañan zer ari naiz esaten? Onak egiten dituenean ez gerade azpertzen; eta orduan ere... edo eguzkijaren izpiak larregi berotzen gaitulako, edo lura ur egari dalako, beti topatzen degu atxekijo, ta bein ere ez dogu ezkerik emoten bear dau lez,